

AGINDUA, 1991ko abuztuaren 30ekoa, Osasun Sailburuarena, Ikasketetarako Beken egitarauaren dirukopurua zabaltzen duena. 6948

AGINDUA, 1991ko abuztuaren 30ekoa, Osasun Sailburuarena, osasun arloko profesionalen teknika mailako gaikuntza eta gaurkoketa ematen dizkieten irabazte xederik gabeko Erakundeei laguntzak emateko egitarauaren dirukopurua zabaltzen duena. 6949

AGINDUA, 1991ko abuztuaren 30ekoa, Osasun Sailburuarena, irabazte xederik gabeko osasun arloko erakundeei, Ospitaletako Ikerketa edo Irakaskuntza Batzordeak etz Lehen Sorospenerako Zentruak barne, Osasun alorreko Zientzia Bilerak antolatzeke diren dirulaguntzak emateko egitarauaren dirukopurua zabaltzen duena. 6949

ORDEN de 30 de agosto de 1991, del Consejero de Sanidad, por la que se amplía el importe del programa de Becas de Ampliación de Estudios. 6948

ORDEN de 30 de agosto de 1991, del Consejero de Sanidad, por la que se amplía el importe del programa de ayudas a Entidades de carácter sanitario sin ánimo de lucro que faciliten a los profesionales sanitarios la formación y actualización técnicas. 6949

ORDEN de 30 de agosto de 1991, del Consejero de Sanidad, por la que se amplía el importe del programa de ayudas a Instituciones Sanitarias sin ánimo de lucro, incluidas las Comisiones de Investigación y/o Docencia Hospitalaria y los Centros de Atención Primaria, para la Organización de Reuniones Científicas. 6949

## Iragarpenak Anuncios

### Obra eta Zerbitzuen Enkante eta Lehiaketak Subastas y Concursos de Obras y Servicios

#### OSASUN SAILA (Osakidetza)

ESLEIPENA, 020/20/0/00061/1402/0591 zenbakia duen Espedienteari buruzko Lehiaketa Publikoarena. 6950

ESLEIPENA, 120/20/1/00072/0000/0691 zenbakia duen Espedienteari buruzko Lehiaketa Publikoarena. 6951

ESLEIPENA, 110/20/0/00043/9999/0391 zenbakia duen Espedienteari buruzko Lehiaketa Publikoarena. 6951

#### DEPARTAMENTO DE SANIDAD (Servicio Vasco de Salud)

ADJUDICACION del Concurso Público para el Expte. Núm. 020/20/0/00061/1402/0591. 6950

ADJUDICACION del Concurso Público para el Expte. Núm. 120/20/1/00072/0000/0691. 6951

ADJUDICACION del Concurso Público para el Expte. Núm. 110/20/0/00043/9999/0391. 6951

## Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak Disposiciones Generales del País Vasco

#### LEHENDAKARITZA, LEGE ARAUBIDE ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA

2696

461/1991 DEKRETUA, abuztuaren 30koa, Herri-Ardurularitzaren Euskal Erakundearen jardute-egitura ezartzen duena.

Herri-Ardurularitzaren Euskal Erakundearen Legezko Jaurpideari buruzko uztailaren 27ko 16/83 Legearen 4. atalak erakunde honen helburuak finkatu zituen. Euskal herri-administrazioen jarduerarako funtsezko diren bi alderdi hartzen dituzte helburuok, gizabaliabideak eta euskararen erabilera normaltea.

Administrazioan giza-alderdiak duen garrantzia kontutan, beharrezko gertatzen da prestakuntza eta hobekuntzarako bide egonkorrak eratzea eta baita langileen hautaketa tajuz eta arlo horretan indarrean dauden lege-arauak betez egitea ere.

#### DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, REGIMEN JURIDICO Y DESARROLLO AUTONOMICO

2696

DECRETO 461/1991, de 30 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica del Instituto Vasco de Administración Pública.

La Ley 16/83, de 27 de julio, sobre régimen jurídico del Instituto Vasco de Administración Pública, estableció en su artículo 4.º los fines del mismo, los cuales giran en torno a dos ámbitos de capital importancia en el desenvolvimiento de las Administraciones Públicas Vascas, cuales son los recursos humanos y la normalización del uso del euskera.

La relevancia del factor humano en la Administración hace preciso el dotar a éste de cauces estables de formación y perfeccionamiento, así como el proceder a su selección con la mayor racionalidad y de conformidad con las normas legales vigentes en la materia.

Bestalde, gaur egun, euskararen erabilera normaltea egiteko nagusietako bat da gure gizartean, eta ondorioz, gure herri-administrazioan. Arlo horretan egin beharrekoak areagotu egin dira, neurri handi batean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak ezarritakoa bete behar izateagatik, eta baita egunetik egunera handiagoa den itzulpeneta interpretaritzaren eskaerari erantzun beharagatik.

Guzti horrek, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura zentzuz eguneratzea dakar, Erakunde honek eraginkorrago bete ahal izan ditzan errealitateak eta lege-araubideak ezarritako egitekoak. Egitura eguneratze hori Euskal Herriko Herri-Ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 13. atalean ezarritakoaren arabera egin da; lege horrek baimena ematen bait dio Jaurlaritzari erakunde autonomiadunen arauetako berregituraketa egiteko.

Halaber, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak bete behar dituen egitekoen zabalasunak eta Erakundeak berak dituen giza eta gauza-baliabideak behar bezala kudeatu behar ezinbesteko egiten du Zerbitzu Orokorra indartzea, kontutan izanda Erakundearen organo eta zerbitzu guztien jardueraren onerako izango dena.

Orain arte azaldutakoagatik, Lehendakaritza, Lege-Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailburuak proposatuta eta Gobernu-Batzordeak 1991ko abuztuaren 30ko bilkuran eztabaidatu ondoren, honako hau,

#### ERABAKI DUT:

1. *atala.*— Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Lehendakaritza, Lege-Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailari atxikita eta zuzenean Sail horretako buruaren menpean dagoen erakunde autonomiaduna da.

2. *atala.*— Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen helburuak Erakunde honen Legezko Jaurpidea ezartzeari buruzko 16/83 Legearen 4. atalean finkatutakoak dira eta baita bestelako lege-arauek aitortu diezazkieten gainerako guztiak ere.

I. Atalburua.— Artekazkaritza eta zuzendaritza-Organak

3. *atala.*— Ondorengoak dira Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen artezkaritza-organak:

- a) Zaingo-Batzordea.
- b) Zuzendaria.

Bestalde, Erakunde honetako zuzendaritza-organotzat joko da idazkari nagusia.

4. *atala.*— Zaingo-Batzordeak, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen kide anitzeko artezkaritza-organoden aldetik, honako kide hauek izango ditu:

a) batzordeburua: Lehendakaritza, Lege-Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburua;

b) buruordea: toki-administrazioaren arloko aginpi-deak dituen Eusko Jaurlaritzaren Sailordetzako burua;

c) batzordekideak honako hauek izango dira:

— Lurralde historikoetako diputatu nagusiak edo hauek ordezkotza emandakoak;

Por otro lado, la normalización del uso del euskera se constituye actualmente en un campo de atención prioritaria en nuestra sociedad y, por ende, en nuestra Administración Pública. En este campo las labores que han de realizarse se han visto incrementadas, en gran medida, por la necesidad de dar cumplimiento a la Ley de la Función Pública Vasca, así como por la demanda, cada día mayor, tanto de traducción como de interpretación.

Todo ello hace precisa la actualización racionalizada de la estructura del Instituto Vasco de Administración Pública, con el fin de que este organismo pueda servir de manera más eficaz a las exigencias que la realidad y el ordenamiento jurídico le presentan, actualización que se realiza al amparo de lo previsto en el artículo 13 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco que autoriza al Gobierno a realizar la reestructuración reglamentaria de Organismos Autónomos.

Asimismo, y ante la complejidad de las funciones a las que ha de hacer frente, así como en atención a la necesidad de administrar adecuadamente los medios humanos y materiales de que dispone el Instituto Vasco de Administración Pública, resulta imprescindible el potenciar sus Servicios Generales, lo cual redundará en un mejor desenvolvimiento de todos los órganos y servicios del Instituto.

En virtud de lo anteriormente expuesto, a propuesta del Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico, previa aprobación de la Presidencia y deliberación del Consejo de Gobierno en su sesión de 30 de agosto de 1991,

#### DISPONGO:

*Artículo 1.*— El Instituto Vasco de Administración Pública se configura como un organismo autónomo de carácter administrativo adscrito al Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico, actuando bajo la dependencia directa del titular de éste.

*Artículo 2.*— Los fines del Instituto Vasco de Administración Pública son aquellos establecidos en el artículo 4.º de la Ley 16/83 reguladora de su Régimen jurídico, así como todos cuantos le sean atribuidos por otras normas legales.

Capítulo I.— De los órganos rectores y directivos.

*Artículo 3.*— Son órganos rectores del Instituto Vasco de Administración Pública:

- a) El Consejo de Patronato.
- b) El Director.

De otra parte, tendrá la consideración de órgano directivo de dicho Instituto, el Secretario General.

*Artículo 4.*— El Consejo de Patronato, como órgano colegiado rector del Instituto Vasco de Administración Pública, estará integrado según sigue:

- a) Presidente: el Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.
- b) Vicepresidente: el titular de la Viceconsejería del Gobierno Vasco que tuviera atribuidas las competencias en materia de Administración Local.
- c) Serán vocales del Consejo:
  - Los Diputados Generales de los Territorios Históricos o persona en quien deleguen.

- Lurralde historiko bakoitzeko Euskal Herriko administrazio orokor eta erakunde-administrazioko ordezkari bat;

- Lurralde osoko ordezkari-tza-mailaren eta finkapenaren erizpideetan oinarrituz, udal-elkarteek izendatutako Euskal Herriko toki-administrazioko ordezkari bat lurralde historiko bakoitzeko;

- Funtzio publikoaren arloko aginpideak dituen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzako burua, edo Zuzendaritza hori baino goragoko mailako organoko burua;

- Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria;

- Batzordeko idazkari gisa, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko idazkari nagusiak jardungo du, hizpidea bai baina botorik izango ez duela.

**5. atala.**- Ondorengoak dira Zaingo-Batzordearen egitekoak:

a) Erakundearen garapenerako plan orokorra onartzea;

b) «Instituto Nacional de Administración Pública» erakundearekin, unibertsitateekin eta antzeko erakundeekin egindako itunak onartzea;

c) urteroko eginkizunen plana eta txostena onartzea;

d) Lehendakaritza, Lege-Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailera igortzeko aurrekontuaren aurretitasmoa onartzea;

e) Erakundearen artezkaritza-izaera edo garrantziagatik eta Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Legezko Jaurpideari buruzko uztailaren 27ko 16/1983 Legearen 10. atalaren arabera emandako beste edozein.

**6. atala.**- Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria Gobernu-Batzordearen dekretuz izendatu eta, hala badagokio, kenduko da, eta Eusko Jaurlaritzako sailburuorde maila izango du.

**7. atala.**- Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariari ondorengo egitekoak dagozkie:

1. a) erakunde ofizial eta pribatu guztiekiko harremanetan Erakundearen ordezkari-tza izatea;

b) egiteko guztien kudeaketa orokorra bereganatu eta bultzatzea, eta baita eginkizunen garapena eta helburuak betetzen direla kontrolatzea ere, urteroko eginkizunen plana eta txostena prestatu eta Zaingo-Batzordearen erizpidean jarritz;

c) zerbitzu eta atalen eta Erakundeari atxekitako langileen buruzagitza izatea;

d) borondatezko izendapenekotzat jotako lanpostuetarako langileak izendatu eta kentzea, hala badagokio, edo Lehendakaritza, Lege-Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuari proposatzea, ahalmena kide bakarreko organo honi dagokionean;

e) ikasketa-planak, jarduketa-egitarauak, tituluak eta hautaketa, prestakuntza eta hobekuntzarako bideak eta moduak proposatzea, dagokion organoak gero onartuz;

f) Erakundeak antolatutako eginkizunetan esku hartzen dutenei eskola-diziplinari buruzko arauak ezartzea, eta Erakundearen burututako ikasketen egiaztagiri, titulu eta diplomak ematea;

- Un representante de la Administración General e Institucional del País Vasco por cada uno de los Territorios Históricos.

- Un representante de la Administración Local del País Vasco en cada Territorio Histórico, designados por las Asociaciones de Municipios en virtud de su mayor representatividad e implantación en el conjunto del Territorio.

- El titular de la Dirección del Gobierno Vasco que tuviera atribuidas las competencias en materia de Función Pública, o del órgano superior a aquélla.

- El Director del Instituto Vasco de Administración Pública.

- Actuará como Secretario del Consejo, con voz y sin voto, el Secretario General del Instituto Vasco de Administración Pública.

**Artículo 5.**- Son funciones del Consejo de Patronato los que a continuación se relacionan:

a) La aprobación del Plan General de Desarrollo del Instituto.

b) La aprobación de Convenios con el Instituto Nacional de Administración Pública, las Universidades y otras Instituciones similares.

c) La aprobación de la memoria y del Plan Anual de actividades.

d) La aprobación del Anteproyecto de Presupuesto para su remisión al Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autónomo.

e) Cualquiera otra que le sea atribuida por su trascendencia o índole rectora del Instituto y de conformidad con el artículo 10 de la Ley 16/1983, de 27 de Julio, sobre «Régimen Jurídico del Instituto Vasco de Administración Pública».

**Artículo 6.**- El Director del Instituto Vasco de Administración Pública será nombrado y, en su caso, cesado por Decreto del Consejo de Gobierno y ostentará el rango de Viceconsejero del Gobierno Vasco.

**Artículo 7.**- Corresponden al Director del Instituto Vasco de Administración Pública las siguientes atribuciones:

1. a) Ostentar la representación del Instituto en su relación con todos los Organismos oficiales y privados.

b) Asumir e impulsar la gestión conjunta de todas las funciones, así como controlar el cumplimiento de los fines y el desarrollo de las actividades, preparando y sometiendo al Consejo de Patronato, la Memoria y el Plan Anual de Actividades.

c) Ejercer la dirección de los servicios y dependencias, y la jefatura del personal adscrito al Instituto.

d) Efectuar en su caso, los nombramientos y ceses del personal en los puestos calificados como de libre designación, o proponerlos al Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autónomo, cuando la competencia esté atribuida a este órgano unipersonal.

e) Proponer planes de estudio, programas de actuación, títulos, sistemas y procesos de selección, formación y perfeccionamiento, para su ulterior aprobación por el órgano competente.

f) Aplicar las normas, en materia de disciplina académica, a los participantes en las diversas actividades organizadas por el Instituto, y expedir los certificados, títulos y diplomas acreditativos de los estudios realizados en el Instituto.

g) aurrekontuaren aurregitasmoa eta beronen jarraipena egitea;

h) Erakundearen gastuak baimendu eta ordainketak agintzea;

i) aurrekontu-izendapenen barruan eta Erakunde autonomiadunaren helburuetarako, irakaskuntza-iharduera eta Erakundearen zereginetik elkarlan zehatzen ordainketarako prezio-taulak ezartzea;

j) legez emandako beste edozein.

2. Aurreko azpiatalean adierazitako egitekoak, d) puntuan jasotakoak izan ezik, idazkari nagusiari ordezkotzan eman dakizkioke, arlo honi dagokion indarrengo legediaren arabera.

8. atala.- Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko idazkari nagusia Gobernu-Batzordearen dekretuz izendatu eta, hala badagokio, kenduko da, eta Eusko Jaur-laritzako zuzendari maila izango du.

9. atala.- Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko idazkari nagusiari ondorengo egitekoak dagozkie:

1.a) Zaingo-Batzordeko Idazkaritza eta Batzordeak hartutako erabakiak betetzeaz arduratzea;

b) zuzendariari dagozkion aginpideen kalterik gabe, Erakundeko Azterlan eta Argitalpen Zerbitzuari eta Zerbitzu Orokorrari emandako egitekoen erantzukizuna burutzea;

c) Erakundeko zerbitzu eta atal guztiak koordinatzea;

d) Erakundeko zerbitzuen eta zuzendaritza-organoen arteko lotune izatea;

e) atal honetako 3. azpiatalean ezarritako eskolen ekonomi, finantza eta lege-kudeaketari buruzkoetan bere laguntza eskaintzea;

f) Zuzendaritzak ordezkartzan eman edo lege-arau-bideak zuzendariari berari aitortu diezazkion egitekoak betetzea.

2. Erakundeko idazkari nagusia artezkaritza-organotzat joko da ondoren adierazitakoren bat gertatuz gero:

a) egiteko zehatzak betetzeko zuzendariak ordezkartza emanaz gero;

b) gaisotasuna edo beste arrazoiren bategatik zuzendaria bertan egon ezean;

c) zuzendari postua hutsik egonez gero.

3. Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko idazkariari atxekitzen zaizkie:

a) Lurralde eta Hiri-Ikasketetarako Euskal Eskola;

b) Administrazio eta Lege-Arloko Itzultzaile Eskola;

c) Itsas Arduralaritzako Eskola.

II. Atalburua.- Zuzendariordetzak.

10. atala.- 1. Egitekoak eta helburuak betetzearren, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ondoko bi Zuzendariordetzak izango ditu:

a) Giza Baliabideetako Zuzendariordetza;

g) La elaboración del Anteproyecto del Presupuesto y el seguimiento en la ejecución del mismo.

h) Autorizar gastos y ordenar los pagos al Instituto.

i) Fijar los baremos destinados a remunerar las actividades docentes y las colaboraciones puntuales en las tareas del Instituto dentro de las consignaciones presupuestarias y para los fines propios del organismo autónomo.

j) Cualquier otra que le sea atribuida legalmente.

2. Las atribuciones consignadas en el apartado anterior, salvo las contenidas en el número d), podrán ser objeto de delegación en la persona del Secretario General, de acuerdo con la legislación vigente en esta materia.

Artículo 8.- El Secretario General será nombrado y, en su caso, cesado por Decreto del Consejo del Gobierno Vasco y ostentará el rango de Director del Gobierno Vasco.

Artículo 9.- Corresponde al Secretario General el ejercicio de las siguientes atribuciones:

1. a) Desempeñar la Secretaría del Consejo de Patronato y velar por la ejecución de los acuerdos adoptados en su seno.

b) Ejercer, sin perjuicio de las competencias del Director, la responsabilidad de las funciones atribuidas al Servicio de Estudios y Publicaciones, así como a los Servicios Generales del Instituto.

c) Coordinación de todos los Servicios y Unidades del Instituto.

d) Servir de puente entre los diversos servicios y los órganos directivos del Instituto.

e) Prestar su apoyo en todo lo concerniente a la gestión económica, financiera y jurídica de las Escuelas contempladas en el apartado 3 de este artículo.

f) Aquellas que le sean delegadas por la Dirección o que específicamente le atribuya el ordenamiento jurídico como propias del Director.

2. El Secretario General del Instituto, tendrá también la consideración de órgano rector en los supuestos tasados que se mencionan a continuación:

a) Por delegación del Director para el cumplimiento de funciones específicas.

b) Por ausencia del Director en caso de enfermedad u otro motivo.

c) Por hallarse vacante el puesto de Director.

3. Se adscriben al Secretario del Instituto Vasco de Administración Pública:

a) La Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos.

b) La Escuela de Traductores Jurídico-Administrativos.

c) La Escuela de Estudios de Administración Marítima.

Capítulo II.- De las Subdirecciones.

Artículo 10.- 1. En orden al desempeño de sus funciones y cumplimiento de sus fines, el Instituto Vasco de Administración Pública se estructura en estas dos Subdirecciones:

a) Subdirección de Recursos Humanos

## b) Euskarako Zuzendariordetza.

2. Zuzendariordetzek zuzendariorde bana izango dute. Hona hemen euren egitekoak:

a) Zuzendariordetzaren aurrekontu-ustekak, egitarauak eta aginpide eta egitekoen buruzko erabakiak betetzen direla zaintzea;

b) Zuzendariordetzaren zerbitzuak ikuskatzea, Zuzendaritzari aitortutako aginpideen kalterik gabe;

c) Erakundeko Zuzendaritzari erabaki orokorretarako proposamenak aurkeztea, beti ere euren aginpideen eremuan.

## III. Atalburua.- Giza baliabideetako zuzendariordetza.

11. atala.- E.A.E.ko herri-administrazioetako langilegoaren hautaketa eta prestakuntzarako Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeari dagozkion egitekoen garapena izango du xede Giza Baliabideetako Zuzendariordetzak.

Aginpide horiek behar bezala betetzeko, Giza Baliabideetako Zuzendariordetzak ondoko zerbitzuak izango ditu:

a) Hautaketa Zerbitzua;

b) Prestakuntza Zerbitzua.

12. atala.- Hautaketa Zerbitzuak ondoko egitekoak izango ditu:

a) Euskal Herriko administrazio orokorreko eta erakunde-administrazio funtzionario, bitarteko eta lan-legepeko langileen hautaketa-prozesuetarako oinarriak egitea;

b) Lehendakaritza, Lege-Araubide eta Autonomi Garapenerako Saileko organo aginpidedunekin lankidetzan, hautaketa-prozesu horiek kudeatzea;

c) Euskadiko beste herri-administrazioetako bitarteko funtzionario eta lan-legepeko langileen hautaketa, herri-administrazio horiek egiteko hori ematen badiote edo lege-arabideak aitortzen badiot;

d) Toki-jaurbidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92.3 atalak, Lege horretako 2. erabaki gehigarriarekin batera, aipatzen duen toki-erakundeetako funtzionarioen hautaketan parte hartzea, hala badagokio;

e) Euskadiko lurralde historikoetako foru-erakunde, udal eta toki-administrazioetako beste erakundeekin elkar lanean aritzea, horietako langilegoaren hautaketarako prozesuetan. Horretarako lankidetzaitunak eta -hitzar-menak ezarriko dira. Era berean, elkar lan hori derri-gorrezkoa izango da lege-arauen batek horrela ezartzen duenean;

f) Estatuko zein atzerriko beste erakunde edo eskoletan hautaketa-arloari dagozkion harremanak eta esperientzia elkar trukitzea;

g) Liburutegi Nagusiarekin elkar lanean, Zerbitzuaren ahalmenen arloko liburu-erosketaren politika aukeratu eta bultzatzea;

h) Euskal Herriko administrazio orokorrean eta erakunde-administrazioan diharduen langilegoaren lanbide-sustapenerako prozesuak balioneurtzeko eraturako kide anitzeko organoetan eta Euskadiko forunahiz toki-administrazioetan, xede bererako, antola daitezen

## b) Subdirección de Euskera

2. Al frente de cada una de ellas existirá un Subdirector cuyas funciones son las siguientes:

a) Velar por el cumplimiento de las previsiones presupuestarias, programas y disposiciones relativas a las competencias y funciones de la Subdirección.

b) Supervisión de los servicios pertenecientes a la Subdirección, sin perjuicio de las competencias atribuidas a la Dirección.

c) Elevar a la Dirección del Instituto las propuestas de disposiciones generales, en el ámbito de su competencia.

## Capítulo III.- Subdirección de recursos humanos.

Artículo 11.- La Subdirección de recursos humanos tendrá por objeto el desarrollo de las atribuciones que, en materia de selección y formación del personal al servicio de las Administraciones Públicas de la C.A.P.V., corresponden al Instituto Vasco de Administración Pública.

A fin de ejercer adecuadamente tales atribuciones, la Subdirección de Recursos Humanos constará de los siguientes servicios:

a) Servicio de Selección.

b) Servicio de Formación.

Artículo 12.- El Servicio de Selección desarrollará las siguientes funciones:

a) La redacción de las bases de los procesos de selección de funcionarios, personal interino y laboral de la Administración General e Institucional del País Vasco.

b) La gestión de los citados procesos de selección, en coordinación con los órganos competentes del Departamento de Presidencia y Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.

c) La selección de funcionarios interinos y personal laboral de otras Administraciones Públicas de Euskadi, siempre que estas últimas le confíen tal función, o viniera encomendada por el ordenamiento jurídico.

d) La intervención, en su caso, en la selección de los funcionarios públicos de las Corporaciones Locales a que se refiere el art. 92.3 de la Ley 7/1985, de 2 de Abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, en relación con la Disposición Adicional Segunda del mencionado texto legal.

e) La colaboración con los Organos Forales de los Territorios Históricos, Municipios y demás Entidades de Administración Local de Euskadi en los procesos de selección de personal a su servicio, para lo cual se establecerán convenios y acuerdos de cooperación. Asimismo, esta colaboración será obligatoria cuando así lo disponga una norma legal.

f) Las relaciones e intercambio de experiencias en materia de selección con otras Escuelas o Instituciones análogas, ya sean de carácter estatal o extranjero.

g) Seleccionar e impulsar la política de adquisiciones bibliográficas en materias de competencia del servicio, en coordinación con la Biblioteca General.

h) La participación en los órganos colegiados constituidos para la evaluación de los procesos de promoción profesional del personal al servicio de la Administración General e Institucional del País Vasco, así como la intervención en los órganos que, con el mismo fin,

organoetan parte hartzea, erakunde horiek hala eskatu edo lege-araubideak horrela ezarriz gero;

i) Prestakuntza Zerbitzuarekin elkar lan estuan, hautaketarako prestakuntza-ikastaroen taxuketa eta burutzapenean parte hartzea, eta praktikaldien jarraipena egitea.

**13. atala.**— Prestakuntza-Zerbitzuak honako eginkizun hauek burutuko ditu:

a) Euskal Herriko administrazio orokor eta erakunde-administrazioan diharduen langilegoaren prestakuntza eta hobekuntza, eta helburu hori lortzeko ikastaro eta eginkizunak antolatzea;

b) Euskadiko administrazioetan diharduen langilegoaren prestakuntza eta hobekuntza, haiek horrela erabakitzen dutenean edo lege-araubideak ezartzen duenean;

c) Toki-jaurbidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92.3 atalak, Lege horretako 2. erabaki gehigarriarekin batera, aipatzen duen toki-erakundeetako herri-langileen prestakuntza eta hobekuntza;

d) Euskadiko lurralde historikoetako foru-erakunde, udal eta beste toki-administrazioetan diharduen langilegoaren prestakuntza eta hobekuntza-lanean haiekiko elkar lanean aritzea, horretarako lankidetzaitunak eta hitzarmenak eginaz. Era berean, elkar lan hori derrigorrezkoa izango da lege-arauden batek hala ezartzen duenean;

e) herri-funtzionarioen prestakuntza eta hobekuntzarako eta lanbide-sustapenerako ikastaro, mintegi eta bestelako ekintzak antolatzea. Ikastaro, mintegi etab. irekiak antolatzeko ahalmena ere badu;

f) ikasketa-planak, aurrerapen-ebaluaketako egitamuak eta titulu-araubideari buruzko proposamenak eskaintzea, eta lankideen eta irakasleen fitxategi edo zerrenda eroatea.

g) «zuzendaritzazko taldeak» prestatzea eta administrazioari eta Estatuaz gainetik erakunde politikoei (Europako Kontseilua, Europako Ekonomia-Elkartea) dagozkien arloetan aditua den langilegoa bultzatzea eta sustatzea, gai honetan aginpidea duten organoekin lankidetzan;

h) prestakuntza-ikastaroetan euskara sartzea, HAEEko Euskalduntze Zerbitzuarekin bat;

i) Estatu zein atzerriko antzeko beste erakunde edo eskolekin harremanak eta esperientzia elkar trukatzea;

j) Zerbitzuaren ahalmenen arloko liburu-erosketaren politika aukeratu eta bultzatzea, Liburutegi Nagusiarekin elkar lanean;

k) Erakundeko Zuzendaritzak agindutako beste ikastaroak edo zerbitzuaren esparruan barne daudenak;

l) hautaketarako prestakuntza-ikastaroak taxutu eta burutzea, eta praktikaldien jarraipena egitea, Hautaketa-Zerbitzuaren ahalmenen kaltetan izan gabe eta honekin elkar lan estuan.

**IV. Atalburua.**— Euskarako zuzendariordetza.

**14. atala.**— Euskarako Zuzendariordetzari dagokio

se constituyan en las Administraciones Forales y Locales de Euskadi, siempre que así lo soliciten dichas instituciones o lo disponga el ordenamiento jurídico.

i) La participación en el proceso de diseño y ejecución de los cursos de formación de carácter selectivo, así como el seguimiento de los períodos de prácticas, en estrecha colaboración con el Servicio de Formación.

**Artículo 13.**— El Servicio de Formación, desarrollará las siguientes funciones:

a) La formación y perfeccionamiento del personal al servicio de la Administración General e Institucional del País Vasco, y la organización de los cursos y actividades para la materialización de tal fin.

b) La formación y perfeccionamiento del personal al servicio de las Administraciones de Euskadi, siempre que así se acuerde por éstas o que lo establezca el propio ordenamiento jurídico.

c) La formación y perfeccionamiento de los funcionarios públicos de las Corporaciones Locales a que se refiere el art. 92.3 de la Ley 7/1985, de 2 de Abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, en relación con la Disposición Adicional Segunda del mencionado texto legal.

d) La colaboración con los Organos Forales de los Territorios Históricos, Municipios y demás Entidades de Administración Local de Euskadi en los procesos de formación y perfeccionamiento del personal a su servicio, para lo cual se establecerán convenios y acuerdos de cooperación. Asimismo, esta colaboración será obligatoria cuando así lo disponga una norma legal.

e) La organización de cursos, seminarios y demás actividades encaminadas a la formación y perfeccionamiento, así como a la promoción profesional de los funcionarios públicos. También tiene facultades para organizar cursos, seminarios ..., en régimen abierto.

f) Proponer planes de estudio, evaluación del aprovechamiento, régimen de titulación, y llevar un fichero o relación de colaboradores y del profesorado.

